

MUSIKA JAIALDIA

Estatuturik gabeko herrialdeen doinura eta erritmora dantzatuko da Galdakao

 **KULTURA /** amagoia.mujiika@gaur8.info

Galdakaoko Andra Mari taldeak 59 urte daramatza euskal kultura ezagutu, gorde eta zabaltzeko lanetan. Bide horretan pauso berri bat eman eta lehenengoz antolatu du estatuturik gabeko herrien musika jaialdia. Maiatzaren 9an eta 10ean Euskal Herriko, Eskoziako, Okzitaniako eta Kataluniako taupadak sentituko dira Galdakaon.

Galdakaoko Andra Mari dantza taldeak dagoe-neko bide luzea egin du. Ez alferri-rik badira 59 urte martxan hasi zela. Eta denboraren joanean ez dituzte ahaztu bere sorrerako arrazoiak. Jose Angel Sagasti, taldeko presidenteak, ekarri ditu gogora: «Bi helburu nagusirekin jaio zen Andra Mari. Alde batetik, identitate abertzalea gordetzea. Garai gogorak ziren eta beharra zegoen horretarako. Eta, bestetik, gure sustraiak, folkloreaki dagokionez, ezagutzea, gordetzea eta zabaltzea. Horiek izan ziren taldea sortzeko arrazoiak».

Azken 59 urte hauetan ez omen dute ahaztu zertarako sortu zen taldea eta nola sortu zen herrigintzatik. Eta beti daukate begirada herrian jarrita, Sagasti berak nabarmentzen duenez: «Hilero-hilero antolatzen ditugu emanaldiak herrian. Urteotan dagoeneko hitzordu finkoak dauzkagu jarriak eta mugimendu dezente darabilgu. Baina, esan bezala, beti daukagu buruan Galdakaoko herria eta hain une gogorak bizi dituen honetan, krisi ekonomikoa eta bestelako krisiak medio, herria gozatzeko zerbait egin behar genuela pentsatu genuen».

Hortik sortu da estatuturik gabeko herrien lehendabiziko musika jaialdia. «Asmoa da bi egunez musika kalera ateratzea, herria eta herritarrak alaitzea eta, bide batez, gure egoera berdinean dauden herrien berri ematea». Izan ere, maiatzaren 9an eta 10ean Galdakaon bildu-

ko diren musikariek tasun komun hori izango dute: estatuturik gabeko herrietako herritarrak dira. Euskal Herria, Eskozia, Okzitania eta Kataluniako taldeek osatzen dute egitarau aberatsa.

«Taldea bezala urteotan bidaia asko egin ditugu, Europara nagusiki, jaialdi desberdinetan parte hartuz. Eskoziarrak, kataluniarrak, okzitaniarrak... horiekin dagoeneko harremana

Beheko irudian, Andra Mari musika taldea. Maiatzaren 9an, ostiralek, 21.00etatik aurrera eskainiko dute emanaldia Kurtzeko plazan. Eskoziarrak, kataluniarrak eta okzitaniarrak izango dituzte lagun lehenengoz antolatutako jaialdi berezian. GAUR8

dugu, eta ondo ulertzen dugu elkar, ez bakarrik kulturalki, herriar bezala egoera berdintsuak bizi ditugu eta horri buruz berba asko egin dugu. Eta horrek asko lotzen du», kontatu du Sagastik.

Andra Mari taldeko kideek oso garbi izan dute sorreratik kulturaren ezagutzak nolako garrantzia eta pisua duen herri bantentzat. «Zuk ez badakizu nondik zatozen, gatzagoa izango da jakitea non zauden eta nora ailegatu behar duzun. Gure iragana aztertzen jarraitzen dugu badakigulako ez dagoela ez orainik ez etorkizunik iragan barik», nabarmendu du Sagastik. Hartara, taldearen lelo nagusia «Gurasoak umeari dana zor» esaera da. Izan ere, Andra Mari taldeko kideek oso garbi daukate «kulturrarekiko ezagutzak hezi eta garatzen lagun dezakeela, gure nortasuna euskal munduan aurkitzen eta Euskal Herria munduan kokatzen».

Ondo pasatzea eta herrira alaitasuna ekartzea ere badago lehenengoz ospatuko den jaialdiaren helburuetan, «baina bestea ahaztu gabe, estatuturik gabeko herrien errealitatea ahaztu gabe alegia», nabarmendu du Sagastik.

Maiatzaren 9ako eta 10erako egitarau aberatsa antolatu dute beraz. Kanean animazioa izango da bi egunetan eta, horrez gain, Kurtzeko plazan jarriko duten karpa batean kontzertuak izango dira bi egunotan.

Maiatzaren 9an, ostiralek, Andra Mari Musika taldea (Euskal Herria), Kherau (Euskal Herria) eta Mânran (Eskozia) taldeak arituko dira 21.00etatik aurrera. Eta larunbatean, maiatzaren 10ean, Xarnege (Okzitania), Korrontzi (Euskal Herria) eta Stukat del Bolet (Katalunia) taldeak, ordu berdinean hasita. Lehen eguneko kontzertuak dohainik izango dira eta bigarren eguneko sarrerak bost euro balio ditu.

